

Maritxu Garitano Elkoroiribe
Bergara, Gipuzkoa (1932)

Aurkibidea

Biografia

Aldaiegia auzoko Gaittao (Garitao) baserrian jaio zen eta Osintxuko Olani baserrian bizi izan da gerora. Umetako baserriko bizimoduaren gaineko azalpen interesgarriak ematen ditu eta, gainera, azalpen guztiak hika (emakumezkoen hikan) ematen ditu.

Zintak

BER-230

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Data:** 1990-01-01
- **Iraupena:** 24 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Aurkezpena

- **Erref:** BER-230/001
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Non jaio zen eta non bizi den azaltzen du. Zer kontatuko duen aurkezten du.

Transkripzioa

-Ba, ni zerian jaiotakua, Gaittaon, Bergaan, gero etorri nintzan ba Osintxura, Olandira, eta hemezortzi urte doiat hementxe, pentsain, atzo zalakuan-da, hementxe. Oñ kontau bihaitut lehenauko gure gazte-denporako zerak. Bueno, ez pentsau zaharra naizenik, e, baiña bajoianaz urtiok. Eta udaazkenekuak eta, ene, udaazkenekuak eta, ene!

2. Udazkeneko istorioak

- **Erref:** BER-230/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:01:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

San Migelak izaten ziren. Astoarekin esne-partitzera joaten zen beste neska batzuekin.

Transkripzioa

-Basora. Bidebaso bat eta bazittunan, etxakiñat gehixao aillegau naizen be. Bai, egonda najaon, bai, hona etorri ezkerro egonda najan beste baten han. Baiña orduantxe izaten zonan Angiozarko San Migel inguruak eta zerak eta gu hara erremeixara. Erremeixaik ez giñunan lagatzen, ingurukoik be ez. Eta harako. Eta ni jutun nintzonan hartu astua eta goizian Bergara. Bergaraiño ez, Altos Hornosera. Altos Hornos, Ozeta..., hortxe izaten najittunan esne-partitziok. Amak esaten jostanan: "bueno, azkar etorri, gero Bidebasora jun bihon bazkaixakin eta." Urtetzen giñustanan Maritxu Uskarkua, Juli Aldai-Etxeberrikua eta bueno, hiru-lau bat hola nere antzekuak esniekin. Nik esaten notsan, "bueno, nik gaur prixia jonat, e, basora jun biha jonat bazkaixakin-da. Eta ahal dabenak ahal daben moduan etxeratu. Jutun nintzonan eta amak bazkaixa gertauta.

3. Etxeko bazkaria

- **Erref:** BER-230/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:02:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Amak prestatzen zuen bazkaria eta merienda azaltzen du. Bazkalorduko kontuak.

Transkripzioa

Baba-lapikua hola saldatsu samar eukitzen jonan, eta gero gaiñian zopak eindda, urdaixa, urdai-zati bat; eta gero meriendatzeko intxaurrak edo txorixua be eukitzen giñunan, etxeko txorixua, earra gaiñera. Eta harek eta ifintzen jostanan, ez oingo moduan kanpazoik eta holakoik be, keba! Lur-banastatxo bat, ifiñi han babalapikuoi eta zerien, eta bueno. Juten nintzonan eta gero Luisitak esango jostanan, “hi, ahazteke ekarritzen gero bururako gantxuak eta”. Bai, bai. Harek beste papelen baten batu eta eruaten najittunan; bazkaltzen giñunan, aittak esango jonan, “bueno oiñ lokamustxo bat edo”. Han garo pillan baten edo. Geuk ebaitzen giñuan garo-moltzon baten gaiñian bota zakua aittak eta eitten jonan lokamuso.

4. Ilea apaintzen

- **Erref:** BER-230/004
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:13. **Bukatu:** 00:02:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aitak siesta bota bitartean, etxeko neskek ilea nola apaintzen zuten azaltzen du.</p>

Transkripzioa

Baiña guk keba!, juten giñustanan, han bide baztarren baten egongo zonan ganau hanka-markan baten ura, eta telia eindda eukitzen jonan harek, eta putz eiñ, kendu haura, eta orratzixoi eta gantxuok eta eruen eta bata bestiai illiak atondu. Orduan ez zonan egoten oingo moduko pelukerixara ta. Bai, ezta jun biha danik be. Ipiñi eta gu prest. Gero buruko paiñolua erabiltten giñunan beti basuan. Bueno!, buruko paiñeluoi jantzi gaiñien eta gu prest lanerako, aittak siestia eitten ebanerako gu pelukerixako bueltia eindda. Gero ekiñaldi bat eiñ han eta erromeixarako, Anguzarrera erreimeixara juteko prest.

5. Lana bukatutakoan, dantzara

- **Erref:** BER-230/005
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:02:53. **Bukatu:** 00:04:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Iluntzean kanpaiak jotzen zuenean bukatzen zuten lana. Aitarekin batera errezatzen zuten. Etxera joan, gauzak hartu, eta beste leku batera afaltzera. Apaindu, eta festa zegoen lekura oinez. Dantza ezin zuten egin edonola. Eta hurrengo goizean, jaikitze komeriak. Horrela egunero.

Transkripzioa

-Gero illuntzien jotzen jonen, Aramaittakua esaten jakonan, San Kristobalen jotzen jonen kanpaia, San Migelen be bai. Da jotzen jonen da bueno, haura izeten zonan lanai lagatzeko ordua; Aramaittakui noiz joko. Ha hasten zonan eta "han aitta!, aramaittakua", "Bai, baiña hau pusketiau aber zertzen doun". Baiña haura jotzen hasi orduko aittak kenduko jonan txapela eta eitten giñustanan errezuak. Errezuak, Aittaguria ta, Paternosterren bat bota ta bueno. Gero laster izeten zonan etxerako martxia. Gu, bueno, hartu geure trastiok, lurbanastatxu horretan bazkaittako traste eta zerak eta, trote! Eta Bidebasotik, pentsain, Lamiategira etorraldixa. Gero ixoiñin Gaittaoko puntara. Hara jun, afalduko giñunan, edo behintzet porru-patatia ta izeten zonan lehenaoko afaittako zeroi, ta afaldu ta gertau ta kendu geure gantxuok eta zerok eta prest, erremeixara. Jun hari gero beste hiru-lau kilometruan Angiozarrera oiñez. Jun hara, bueno, piezaik baztarrian-da pentsau be ez eitteik, e! Pieza danak eiñ. Baiña gero goizao, hori bai, hori etorten giñustanan ba beranduenen be hamaiketerdiak, eta berandu gatozela eta. Etorri hadi han ukatu dantzan eta Gaittaoko puntara takarra-takarra-takarra ta. Hurrengo egunian aittak goizian diar eitten ebanian berriz basorako, argi, e!, han eztaixela esan aittak "atzo etxaonan loguraik!, Enee!, haura entzutia baiño nahixao giñunan guk, bueno! Eta hurrengo egunian beste norabait basora; beste hainbeste. Eta hurrengo egunian erremeixia pasauta zonan baiña orduko kontuak esaten lanian garosaillak ebaitzen giñustanan, guk, e. Bueno, bueno, bueno.

6. Elgetako jaiak eta etxerako buelta

- **Erref:** BER-230/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:47. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Dantzan gustura, eta ilundu. Etxerako bidean, beldurtuta egon arren, pozik kantari joaten ziren. Hurrengo goizean, jaikitze lanak.

Transkripzioa

-Eta hurrengo aurreko eguneko kontuak esanaz, puff. Eta hurrengo egunian be beste hainbeste, aramaittakua jotzen ebanian errezau eta etxera. Erremeixaik ez giñunan lagatzen, ene! Elgetara ta. Elgeta lekutan jaon Gaittaotik. Juten giñustanan, gaiñera agostuan izaten zittunan Andramaixak, beroik haundiñeko zerak eta. Juten giñustanan Aldaiko eta Aldai-etxebarriko eta danok, ixotzen giñunan Asentziora, Asentziotik handik Elgetara. Elgetara jun eta piezaik be ez, han be ez. Geratu? Pentsau bez. Ukatuta. Ene!, hauxe pieziau behintzet, ai, hau bai dala politta!, hauxe einddakuen, e, hau einddakuen etxera. Hau einddakuen etxera, illuna eitten jakunan eta, etorri hari gero mendiz mendi; baiña kantu baten

etorten giñustanan, billurra be eukiko giñunan, e. Baiña bat eta bi ez giñustanan etorten, kuadrillia, danak neskak, e; eta kuadrillia etorten giñustanan kantu baten, hor Anguzarko basarriko txakur danak zaunkaz giñuzela. Ene!, noizko aillegau etxera... Eta etxera aillegauta deskantsatzen giñustanan baiña, hurrengo egunian jun hari berriz zerera, berriz basora, berriz zerera. Enee!

7. Bizikleta oparitu ziotenean egindako bueltak

- **Erref:** BER-230/007
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Bizikleta oparitu zioten. Urrutitik legamia ekartzea ahaztu, eta bueltan joan behar bizikletarekin. Enkargu asko egin zituen bizikletarekin. Bizikleta nola zaintzen zuen azaltzen du.

Transkripzioa

-Gero beste bat zonan, bueno, horrek danok baiño lehenao bizikletan. Bizikletia neri erregalau jostenen. Nere modukoik ezta ezta Euskal Herrixan ezeze Espaiña guztian be nire modukoik! Ni be banintzonan ba, lebaduria bihar izeten jonan amak labesua eitteko ta. "Ekarri lebaduria" ta. Lebaduratara ba San Antoniora jun bihar, honutzauan ez zonan egoten eta. Zer eta ahaztu. Ahaztu ez, laga. Jun etxera eta "lebaduria ahaztu jata, ama". "Baiña lebaduria, azkarrixa ein biha neban-da, biha neban labesua eitteko". "Segiduan ekarrikot". Neu nintzonan, liberdi enintzonan, e; flakiao ta, hartu bizikletia ta goittik behera. Pixu gehixao bizikletiak neuk baiño. Eta haura hartu Gaittaon eta ni bajatzen nintzonan ba goittik behera jota aide! (...) behera, batian bixkarrien eta bestian zerien. Eta bajau eta San Antonion lebaduria eta Barrutiraiño.

-Nun dao Barruti?

-Barruti? Han San Juanerako galeperren zera badao ba, ba haura baiño lehentxuao. Lehenaoko irin-fabrikia edo eztakin nun daon? Dimasen-da zera, haretxen segidan. Da pentsain, zeretik San Antoniotik bizikletan haraiñotxe. Eta ni etorritta najan Mekolalde ondoraiño. Eta itturrixan ura eran da etxera eguardixan, eta ama azkarrixai begira. Da baiña aidian eiñ, e! Nik bizikletan zenbat erreka! Ene! Denporia neban, aittak "oin siesta puxkat eiñ, bazkalostien puxkat etzantxo bat, etzantxo bat!! Haura ezkututzen zanian bizikleta garbitzen, trapu danak bizikletan. Eneee!

8. Bizikletan ibiltzeagatik, jertsea hondatu

- **Erref:** BER-230/008
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:09:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Oraindik bizikletarik ez zuenean, bizikleta alokatu eta Oñatira joan zen beste neska batzuekin, bere jertserik onena eskulekuan jarrita zuela. Aurretik zihoan lagunak oreka galdu, eta harekin trabatu zen bizikletarekin. Jertsea hondatu egin zen.

Transkripzioa

-Beste baten, artien nik enaukanan bizikletaik, eta pentsau dou neska-gaztiok bizikletak alkilau eta Oñetira. Altos Hornosen egoten zonan alkilerra, hoixe, Barrena. Oin be Barrenak neri sekulako saludua eitten jostan; eske, enee!, gu giñustanan, bueno. Eta bizikletok eta. Etxakiñat ba, atsalde guztia pezeta bi edo. Hartu bizikletioi eta jun gaittun. Eta orduantxe guk Luisitak eta bixok jersiak ein barrixak, San Antonioko zerian gaiñera, Mikeletianian edo einddakuak, polittak jertsiak. Eta nik, ama siestan eta hartu jerseik onenoi da lotu manibelian eta jun gaittun. Da claro, beste bat nere intimia zonan, Aldai-etxeberrikua, zerian bizi don, Bitorixan, eta harek be etxakiñan ondo bizikletan. Klaro, noizian behin kotxe bat pasatzen zonan karreteran, ez oingo moduan, bagoianaz Zubillagatik gora, eta Zubillagatik gora bagoianaz eta jarri don haura aurrian. Eta kotxe bat, bli tta, jarri da aurrian eta ostientzekuak haren ondoren karabanan, eta haura hasi don esiak eitten, ditzt, ditzt, noiz jausiko, ez jausiko, neri haren errubieran trabatzen jatan nere erruberia, nahasten gaittun eta bixok lurrera. Eta zer eta nere jersioi etxatan ba dana grastu han. Haura penia!, haura penia! Gero Lusitai: “zela baiña!” ta.

9. Ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeko

- **Erref:** BER-230/009
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:09:43. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gertatutakoaz ama kontura ez zedin, zer egin zuen azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Gero, pentsain, angorina edo puxkat zera jaukanen, ama siestan zan bittartian garbittu hurrengo egunian. Baiña kanpuan esegitzia be amak ikusi eztaixen ganbaran. Han sikatzen jersioi, noizko sikatuko ete zonan han. Eta han siketzen baiña mantxia, geratu jakonan grasa, klaro, bizikletian grasa. Badakin ze ein gontsan, etara illiak hola beste danian eta han ipiñi ama konturau ezteñ. Baiña gure ama be ez zonan tontia, eta: “Zer jaukan horrek jerse horrek?” “Honek ezebez”. Bai, ze, horrek ze jaukan? Ze jaukan? Auskalo zeekin gaiñea guk garbittu be, Chimbo eta ostientzeko jaboe danekin izengo zonan garbitzioi tta. Zihero tupiduta dana, inguruko illio etara ta han ipini tta. Ta bizikletan etorteko gauza ez Juliña, eta haren beste basarriko gizon bat etorri, desmontau bizikletia, trena pasatzen zan orduantxe, eta trenian haura bialdu Altos Hornosera, artien trenerako denpora asko euen, Altos Hornosen beste batek urten

bihar hari. Han ez, San Pruenzion, San Pruenzion ein bihar trasbordua, pentsaiñ. Eta han ganbixatzeko, San Pruenzion ganbixatzeko han baten bat egon dailla, harek errubedok eta manibelok eta danok desmontauta dittuela trenian, eta bi edo hiru gu aurrera, jota emonala guztian, beste horrenbeste pasatzeko denporaz San Pruenziora, trena etorri baiño lehen, artian trenerako han denporaz geratu zien Zubillan. Han geratu zienak harek trenera sartu eraiñ bizikleta zarroi, eta gero gu San Prudentzion zaiñ berriz etaratzeko, eta beste trenian, Bergararako trenian sartu eta berriz Altos Hornosera emonala guztian hari bizikletok etaratzeko. Enee!, haura jerse haura! Baiña pena bat eta! Eta Luixita ta bixok, e. Guk bixok pasatzen giñustanan baiña, baiña..., bata bestiai ama ez enteratzeko, baiña ez zonan tontia, mekatxis la porra. Eske hari koittauai kostauko jakonan haura jertse haura. Baiña neuk hoixe, dotore ibiltia nahi tta, Pazkuetarako eukitzen jittunan jerse dotoriok eta. Han ibiltzeko ez, baiña, honbre. Manibelien han txintxiliz graziosua izengo zonan eta, nere jertsioi dana grastuta baiña gero harek batu, montonau, disimulatzen. Ene! Ni harekin bizikleta harekin ibili nintzonan, bueno, ezta erregeik be ez.

10. Eskolako andereñoa eta haren alaba

- **Erref:** BER-230/010
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

San Kristobalگو eskolan ibili zen. Andereñoa nola moldatzen zen bere alabarekin enkarguak egiteko.

Transkripzioa

-Gu San Kristobalen ibili giñustanan eskolan, eta maistria zonan Tomasa, gaiñera, edadetua zonan, ama-alabak bizi zittunan, alabia, badakin, Pilar, nere madrinia; alabia ibiltzen zonan etxeik etxe, josten. Da bera bakarrik egoten zonan ama, klaro, alabia juten zonan basarrira eta han eitten jonan jatorduok eta zerak eta ama bakarrik. Gero Angiozartik bajatzen zonan korreua, Iruingua, oin be bizikon haura andra haura, kaballuakin eta karro batekin-da. Eta Angiozarko kartok eta ostientzeko errekauiok harek ekarten jittunan Angiozarrerako. Eta gure maistriak be errekaun bat eukanian urtetzen jotsanan, bajakiñan gutxi gorabehera ze ordutan bajatzen zan, urtetzen jotsanan, emuten jotsanan errekaui, eta gero atzera behetik goruzkuen diar eitten jonan: "Tomasaaa!", "Han, korreua", ta banoia. Juten zan, eta, klaro, hartzen jonan errekaui, baiña gero barriketan egoten zonan puxkan baten, segiduan ez zonan etorten. Zeoze senittarteko etxakiñat ez zien harek.

11. Ikaskide bihurri baten abenturak

- **Erref:** BER-230/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:39. **Bukatu:** 00:14:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Ikaskide bihurri batek (Silbestre) gereziak biltzen zituen andereñoa konturatzen ez zen bitartean.

Transkripzioa

Eta Silbestre bat bazonan, ene! Silbestre, laster urtengo jonan. Harek atian urten orduko Silbestre bajoianan, aire! Edo keixia edo melokotoia edo sagarra edo zeoze baldin bajaonan, hartara, keixa arbolara ixotzen zonan, bueno! Besteik ez haren modukoik. Segittuan zonan keixa puntan. “Silbestre, neretako be ekarri, e!, neri be bai, e!” Ekarriko jittunan, eskuok, poltsikuok, kolkuok, dana beteta. Eta gero maistria zaittu bihar izeten giñunan eta, “Silbestre, badator, badator!” , diar baten. Eta maistriak jaukanan gorra, bueno, haundixa. Bestela Sustraitzatik be entzungo jittunen gure diarrak. Etorten zonan. Batzutan maistria igual bittartian sartu bera baiño lehenao. Eta gero maistria jutun zonan gora, goixan jeukanen habitaziñuak, eskilleretan gora trastiak lagatzera edo errekauek, eta bestiak jaukanen giltza-zulo bat, atian jeukanen giltza-zulo bat gure bentania baiño haundixaua, eta handik begira jartzen zonan hola, eta maistria gora jutun zanian, ra!, sartu ta ekarten joskunan ba eskola danandako, keixia baldin bazan, okana baldin bazan. Gure Beitzibarko tio Asentzionak eta keixak eta. Baiña zelako keixak! Puf! Adarrak eta! Haura? Bueno!

12. Komunerako bidaia

- **Erref:** BER-230/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:16:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Komuna egon bai, baina ez ziren joaten. Hara joateko, baimena erdaraz eskatu behar zuten. Mutilek, komunera joateko aitzakiarekin, bihurrikeriak egiten zituzten.

Transkripzioa

Gero beste bat zonan, komuna bertan jaon, oin be han jan eta. Baiña gu sekula ez giñustanan komunera jutun, han etxoskunan lagatzen. Gu eta gure aurrekuak be ez zittunan jungo, eta kitto. Dana euskeraz eitten giñunan baiña hauraxe permisua eskatzia geunkanan, erderaz izengo zonan edo. Etxakiñat ze izengo zan. “Por ustel” esaten giñunan, “Me permite usted” izengo zonan igual, baiña ba hoixe. Gero maistriak esaten joskunan, “vete!”. Bueno, urtetzen giñunan geure eginkizunak eittera eta han sasin baten, sasi kontran baten, edo errekatxuan zihher eta. Ba, neskak bastante zer etorten giñustanan, baiña mutikuak, mutikuak jutun zittunan, eukitzen jonen apixan bat ikusi biharrekua, edo beste zeozer. Geratu bez. Harek noizko eskolaratu. Eta hala besten batek, “tardatzen jok ba harek”, eta berak be eskatu. “Porrustel”, eta “Véte. Haura be ezta etorri oinddio,

haura nun ete da” ta. Adios, orduantxe akordau han falta dala baten bat. Da jun da bixak igual juntau eta apixak bila igual, Elizburu esaten jakon han Elko(ro)neko zerak eta, handik buelta jakitten eben apixan bat, harek ikusi tta, lumatuta daren txorikumak edo zerak eta, eskolako jiria. Gure eskolia holakotxe zerak.

13. Komuniorako prestatzen

- **Erref:** BER-230/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:16:09. **Bukatu:** 00:17:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ondo ikasten zuten eskolan. Dotrinara joateko egin behar zuten ibilbidea azaltzen du. Pozik joaten ziren.

14. Beste ikaskide bihurri baten abenturak

- **Erref:** BER-230/014
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:17:19. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Beste ikaskide bati (Felix) buruzko abenturak. Poltsa etxean ahaztu zuen aitzakiarekin, goizean piper egiten zuen.

15. Errekadista lanetan ibiltzen zenekoa

- **Erref:** BER-230/017
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:20:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Errekaduak egiten ibili zeneko kontuak azaltzen ditu. Joaten zen lekuetan olibak ematen zizkioten.

16. Fruta gutizi moduan erosten

- **Erref:** BER-230/018
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:38. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

<p>Diru pixka bat zutenean, eroatera joaten ziren fruta-saltzailearengana.</p>

Transkripzioa

- Ta inoiz hola e? Errial bikua ta geunkanian ta eostea. Errial biren azeitunak eta, ta holako eskutakadatxo bat emoten joskunan ta. Ta geo beste bat ibiltzen zonan gizon bat, karro bat, ta erabiltten hittunan hola, kanpasotxo batzuk: batien mandarinak, bestien piku-pasak, bestien zeak, naanjak, ta saltzen ibiltzen zonan. "Fruteeeero!" diar eindda, Altos Hornosen, han pasatzen zonan ta. Gu eskolatik urtetzen giñuanian edo, txakur haundin bat edo bi edo baldin bagauzkanan, "una naranja de dos perras" ta ze ba txikixenen bat edo emoten oskunan, ba klaro, kilua izengo zonan igual pezetia edo, pezeta bi edo. Zea, han ezin hasi kalkulatzeko haren zenbat balio daben. Eta han tartien hartuko jonan txikitxo bat, eta horixe emongo, emoten oskunan, ta bueno... haura gozua izeten zonan. Jo! Dirua falta baiña, behintzat naanjia janda! Jo! Piku-pasak eta.

17. Garizuma San Kristobalen

- **Erref:** BER-230/019
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:21:38. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Garizuma jai alaia izaten zen. Jende asko joaten zen. Gazteak "txikiletan" ibiltzen ziren, gaseosa edaten zuten bitartean. Neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com